



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bilboko Udal Etxebizitzak TEA

Plantillako langile lan-kontratudun finko baten lanpostu bat betetzeko oinarri espezifikoak argitaratzeko iragarkia (LEP 2023).

Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren iragarkia, 2025ko urtarrilaren 31tean TEAko presidenteak onetsitako oinarri espezifikoari buruzkoa, jarraian adierazten den plantillako langile lan-kontratudun finko baten lanpostu bat betetzeko:

- Informatika-teknikari lanpostu bat. Nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizuna, 2802-01 zuzkidura-zk., 23. maila, 2. sailkapen profesionaleko taldea (A taldea/A2 azpitaldea), 2023ko Lan Eskaintza Publikoari dagokiona, oposizio-lehiaketa sistemaren bidez, txanda irekian.

Bilbon, 2025eko urtarrilaren 5ean. — Zuzendari Nagusia, Iñigo Villarroya Lozón



**BILBOKO UDAL ETXEBIZITZAK TEAKO KALITATE, GIZA
BALIABIDEETAKO ETA ZERBITZU OROKORRETAKO SAILARI ATXIKITAKO
INFORMATIKA-TEKNIKARIAREN 1 LANPOSTU HORNITZEKO DEIALDIRAKO
OINARRI ESPEZIFIKOAK**

Lehenengoa. – Iragarritako plazak

Oinarri espezifiko hauek, 2022ko maiatzaren 12ko 90 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako oinarri orokorrekin bat, txanda irekiko sistemaren bidez deialdian iragarritako plantillako langile finkorako hautaketa-prozesua arautuko dute. Prozesua oposizio-lehiaketa bidez ebatziko da, Informatika-Teknikariaren 1 lanpostu hornitzeko; euskarazko nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin, 2802-01 zuzkidura-zenbakiarekin, 2. lanbide-sailkapen taldean (A taldea/A2 azpitaldea), 23. mailakoa, 2023. urteko Lan Eskaintza Publikoaren barruan.

Jarraian lanpostuaren xedea eta eginkizunak jaso dira, eginkizunen eskuliburuan jasota dagoen moduan:

Misioa

Erakundearen Sistemen Plana garatu eta sustatzea, sistema teknologiko guztien segurtasuna, administrazioa eta garapena eta administrazio elektronikoaren bilakaera integratzeko, eraldaketa digitalean aurrera egite aldera.

Funtzioak

- Erakundearen Sistemen Plana egitea eta erabili beharreko teknologiaren instalazioa kudeatzea.
- Sistemen mantentze-lan prebentiboak eta ebolutiboak egitea, eta, horretarako, beharrezkoak diren zerbitzuen/hornikuntzen agiri teknikoak egitea eta haien kontratazioa kudeatzea.
- Aplikazio berriak ezartzea eta arloei haien buruzko orientabidea ematea, eta horretarako, beharrezkoa den laguntza teknikoak ematea.
- Erakundearen software eta hardware funtzionamenduari buruzko diagnostikoa eta soluzioen proposamenak biltzen dituzten txostenak egitea.
- Aplikazio berrien probak egitea eta haiek ebaluatzea sistemetan ezarri aurretik.
- Lanean hasi berri direnen profilen, posta elektronikoaren eta sarbideen konfigurazioa gainbegiratzea.
- Sistema guztietan segurtasuna kudeatzea.
- Giza Baliabideen arloarekin lankidetzan aritzea informatika arloko prestakuntza-jarduerak diseinatzeko.
- Parte hartzeko eta jendaurrean jartzeko prozesuetan beharrezkoa den teknologia sustatzea, bai eta sare sozialetan ere.
- Lan prozesuen etengabeko hobekuntza sustatzea, teknologia berriak aplikatuta.
- Helburuak betetzeko eta arloaren funtzionamendu egokia lortzeko agintzen zaion eta bere kategoriari dagokion beste edozein zeregin betetzea.

Bigarrena. – Deialdian jasotako plazetarako betekizun espezifikoak

- a) Eskabideak aurkezteko epea amaitzean, izangaiak Informatikaren Ingeniaritzako graduko unibertsitate-titulua izan behar dute edo lortzeko egoeran egon behar dute, Batasunaren araudiaren arabera.

Atzerrian eskuratutako tituluak dituzten hautagaiek dagokion homologazio-egiaztagiria izan beharko dute. Betekizun hori ez da aplikatuko Europar Batasuneko zuzenbide-xedapenen babesean araututako lanbideen esparruan gaikuntza profesionalaren aintzatespena lortu duten hautagaien kasuan.



- b) Nazionalitatea. Espainiar nazionalitatea izatea.
- Era berean, honako hauek ere enplegu publikoetan parte hartu ahal izango dute, espainiarrek dituzten baldintza berberetan, baldin eta botere publikoa baliatzen edo estatu edo herri administrazioetako interes orokorren zaintzan zuzenean edo zeharka parte hartzen ez badute:
- b.a) Europar Batasuneko kide den estatu etako baten nazionalitatea dutenek.
 - b.b) Espainiarren ezkontideek eta Europar Batasuneko kide den estatu etako baten ezkontideek, ezkontidearen nazionalitatea edozein izanik ere, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude. Era berean, ezkontide bien ondorengoei hartu ahal dute parte baldintza berberetan, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo bestela, adin horretatik gorakoak izanda mende-koak badira.
 - b.c) Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioar-teko itunenei jarraiki, b.a) apartatuan zehaztutakoaren arabera langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritartasuna izatea.
- c) Gaitasuna: Eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea; horretarako beharrezko gaitasun psikofisikoa izan behar da, eta gaitasuna edo desgaitasuna bateragarria izan behar da deialdian jasotako plazei dagokion lanpostuko eginkizun eta zereginak modu arruntean bete ahal izateko. Hori udaleko zerbitzu medikoei egiaztatuko dute, oinarri orokorretan aurreikusitakoarekin bat. Hala ere, alde batera utziko dira lanbidetik eratorritako arriskuetatik pertsonen babesa bermatzeko lan-arriskuak prebenitzeko indarreko araudiaren pean lanpostuan egin behar diren egokitzapenak.
- d) Adina: Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirako gehieneko adina ez gainditzea.
- e) Gaikuntza: Edozein Herri Administrazioaren zerbitzuetatik edota autonomia erkidegoetako konstituzio edo estatutu organoetatik diziplina-espedita bidez baztertuta ez egotea edota ebazpen judizial bidez desgaitasun absolutu edo berezirik ez izatea lanpostu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen kidego edo eskaletara sartzeko.
- Beste estatu bateko herritarra bada, desgaitua edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta bere estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.
- f) Administrazio publikoetako langileen bateraezintasunen arloan indarrean dauden araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kasuak batean sartuta ez egotea, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezin batean ari diren zat aipatutako lege-arauetan aipatzen den aukera-eskubidea baliatzea eragotzi gabe.
- Deialdian parte hartu nahi dutenek eskatutako betekizun guztiak bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea amaitzen denerako.
- Era berean, betekizun guztiak bete beharko dituzte hautaketa-prozesuak irauten duen bitartean eta izendapena egiten den arte, gaitasun funtzionalari buruzko c) atalean adierazitako kasuan salbu; kasu horretan, langile lan-kontratudun gisa izendatu baino lehen udaleko zerbitzu medikoei egiaztatu beharko dute desgaitasun hori.
- Hala ere, prozedurako edozein unetan epaimahaiak jakiten badu hautagaietako batek ez dituela deialdian eskatutako betekizun guzti-guztiak betetzen, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da, aldez aurretik interesdunari entzunaldia eman ostean, eta egun berean hautaketa-prozesuaren deialdia egin duen agintaritzari egoera horren berri emango zaio.

**Hirugarrena. – Eskaerak**1. *Aurkezteko modua eta tokia*

Eskaerak modu telematikoan nahiz papereko formatuan aurkeztu ahalko dira.

- a) Eskaera telematikoak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira. Udalaren webgune-ko EPEren atalean lor daiteke (<https://opevmm.bilbao.eus>).

Eskaera horiek helbide elektronikoko horretan adierazten den prozedura elektronikokoaren bidez aurkeztuko dira. Baldintzak eta alegatutako merezimenduak betetzearen adierazpena egiteko, hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko egiten den eskaeran, horiek zerrendatuta eta identifikatuta. Hala ere, ez da horien egiaztagirien kopia aurkeztu behar eskaerarekin batera; izan ere, parte hartzeko baldintzak eta hala badagokio alegatutako merezimenduak Epaimahaiak edo Kalitate, Giza Baliabide eta Zerbitzu Orokorren Arloak eskatzean egiaztatuta behar dira.

- b) Papereko eskaera: Bete behar den eskaerako eredu ofiziala II. eranskinean jasota dagoena da. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan jasotako tokietan aurkeztu ahalko da.

Era berean, hautagaiek oinarri hauetan eskatutako baldintzak onartzen dituzte izena emateko unean, eta, era berean, baimena eman ahalko dute eskaera formalizatzean, hori betetzeko behar den dokumentazioa modu telematikoan kontsultatzeari dagokionez: identitate-datuak, titulu akademiko ofizialak, hizkuntza-eskakizunak, etab. Baimena emanez gero ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori aurkeztea, baldin eta elkarreragingarritasun informatikoaren bidez kontsulta badaiteke.

Hautaketa-prozesu honen emaitzarekin lan-poltsa egingo da, eta eratzen den unean lan-poltsak kudeatzeko indarrean dauden irizpideen arabera kudeatuko da. Lan-poltsa izaera publikoko beste administrazio edo erakunde batzuen eskurara jarri ahalko da.

2022ko maiatzaren 12ko 90 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako oinarri orokorretako hamaikagarren oinarrian, lan-poltsak osatzeari buruzkoan, aurreikusitako ondoretarako, oinarri hauen xede diren hautaketa-prozesuak egiteko, hautagaiek prozesuotan parte hartzeko eskaeran adierazi beharko dute baimena ematen duten administrazio publikoko beste erakunde batzuei honako hauei buruzko datuak lagatzeko: izen-abizenak, NANA, harremanetarako telefono-zenbakia eta prestakuntza-maila. Datu horiek lagatzearen helburu bakarra izango da erakunde horiek lan-eskaintzak legezko baldintzetan egin ahal izatea. Datuak eman ahal izateko baimena beren-beregi ematen ez bada, ez dutela baimena ematen ulertuko da.

2. *Aurkezteko epea.*

Eskaera 20 (hogei) egun balioduneko epean egin beharko da, deialdi honen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Larunbatak, igandeak eta jai-egunak ez dira egun balioduntzat hartuko ondore horietarako.

Laugarrena. – Epaimahaia

Indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera eta plantillako langile lan-kontratudun finkoen plazak jabetzan betetzeko Oinarri Orokorretan ezarritakoaren arabera, epaimahai burua, idazkari bat eta gutxienez hiru kide izango dira. Horien artean Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona bat egongo da derrigorrez.

Epaimahaia osatzen dutenak, gehienbat, teknikariak izango dira eta berezitasun printzipioan oinarritutakoa izango da; kide guztiek deialdian parte hartzeko eskatu den titulu edo maila akademiko berbera edo goragokoa eduki behar dute eta deialdiko jakintza-arlo bereko titulazioa edo espezializazioa izan behar dute epaimahai bakoitzaren kideen erdiek gutxienez. Epaimahaiaren osaera orekatua izan beharko da, eta sexu bakoitzaren ordezkaritza %40koa izango da gutxienez, hori egoki ez dela justifikatzen ez bada, behintzat.



Epaimahaian euskararen jakite-maila neurtzeko proba egiteko izendatutako kide bat egongo da, eta euskararen jakite-maila neurtzeko bakarrik izango da, eta lehen aipatutako hiru kideei erantsiko zaie.

Bosgarrena. — Hautaketa-prozedura

Hautagaiak lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz aukeratuko dira. Oposizio-fasean hiru ariketa egingo dira eta lehiaketa-fasean merezimenduak baloratuko dira. Oposizio-fasea egingo da lehenengo.

Epaimahaiak ariketen ordena aldatu ahalko du, edo egun bakarrean horietako zenbait egitea erabaki, aldez aurretik <https://opevmm.bilbao.eus> webgunean horren berri emanez.

Haurdun edo edoskitze-aldian daudenek materialak egokitzeko eskatu ahalko dute; kasu horretan, Kalitatea, Gizarte Baliabideak eta Zerbitzu Orokorak arloari eman behar ko diote horren berri, gutxienez probak egin baino bost egun baliodun lehenago.

Oinarri orokorretan xedatutakoari kalterik egin gabe, behin betiko onespenei eta baztertzeei buruzko deialdi honetako ondorengo iragarki guztiak iragarki-oholean eta udal-webgunean argitaratuko dira <https://opevmm.bilbao.eus>.

A) Oposizioko fasea

Derrigorrezkoak eta baztertzailleak diren hiru azterketa egin behar dira oposizioan.

Lehen ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzaillea

Zati bi izango ditu, eta bata bestearen ostean egingo dira, egun berean, eta epaimahaiak hautagaiei bi zatien artean atseden hartzeko tartea emango die.

Lehenengo zatian idatziz erantzun behar ko da epaimahaiak ezarritako test-motako galdera-sorta bat, 60 galderakoa. Galdera horiek lehenago <https://opevmm.bilbao.eus> webgunean argitaratutako galdera-sortatik aukeratuko dira. 50 bakarrik ebaluatu ahalko dira, eta 10 erreserbako galdera gisa gordeko dira. Galdera bakoitzak 4 emaitza izango ditu aukeratzeko, eta bakarra izango da zuzena. Galderak erantsitako programako zati orokorreko gai ei buruzkoak izango dira (1. eta 18. bitarteko gaiak), eta gehienez ordubete emango da proba egiteko.

Azken 10 galderak erreserba-galderak dira, eta 50 lehenengo galderetako baten bat baliogabetu denean baino ez dira aintzat hartuko.

Zati horretan 0,00 eta 5,00 puntu bitarteko kalifikazioa lortu ahalko da. Zati horretan, erantzun zuzen bakoitzarekin 1,00 puntu lortuko da, eta gaizki erantzundako erantzun bakoitzak 0,33 puntu galtzea eragingo du; hortaz, lor daitekeen gehieneko puntuazio zuzena 50,00 puntukoa izango da, eta azken puntuazioan 5,00 puntuko gehienekoaren arabera adieraziko da.

Erantzun gabe geratu diren galderek eta erantzun bikoitzek ez dute punturik kenduko.

Bigarren zatian, idatziz epaimahaiak II. zatian (gai-zerrenda zehatza) proposatutako 3 gaietako 2 garatu behar ko dira. Epaimahaiak ausaz aterako ditu gaiak, ariketa egin baino aurre-aurretik, eta gaiak garatzeko gehieneko epea 1 ordukoa izango da.

Ariketaren zati hori egin aurretik, epaimahaiak zuzentzeko irizpide orokorren eta puntuatzeko moduaren berri emango du.

Bigarren zati hori 0,00 eta 15,00 puntu bitarteko puntuazioarekin baloratuko da.

Ariketa horretan 0,00 eta 20,00 puntu bitarteko kalifikazioa lortu ahalko da, eta automatikoki baztertuko dira gutxienez 10,00 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak.

Bigarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzaillea

Epaimahaiak ariketa egin aurre-aurrean proposatutako bi kasu praktiko ebatzi behar ko dira, gai-zerrenda erantsiari dagozkionak, gehienez 1 orduko epean.



Hautagaiak epaimahaiaren aurrean defendatu beharko dituzte kasu praktiko horiek. Epaimahaiak aintzat hartuko ditu bai hautagaiaren aurkezpena, bai egindako galderei emandako erantzunak edo kasu praktikoan jasotakoa adierazteko gaitasuna; horretaz gain, beste alderdi batzuk balioetsi ahalko dituzte, hala nola gaiaren gaineko ezagutza, aurkezpenaren zehaztasuna edo laburtzeko gaitasuna.

Ariketa hori egin aurretik, epaimahaiak zuzentzeko irizpide orokorren eta puntuatze-ko moduaren berri emango du.

Ariketa horretan (idatzizko kasu praktikoak eta horien defentsa) 0,00 eta 20,00 puntu bitarteko kalifikazioa lortu ahalko da, eta automatikoki baztertuko dira gutxienez 10,00 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak.

Hirugarren ariketa (euskarazko proba): Derrigorrezkoa eta baztertzaila

Euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da epaimahaiak erabakitako eran. Horretarako, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak emandako jarraibideak erabiliko dira, halaxe ezartzen baitu indarreko legediak.

Honako hauek ez dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ariketa egin beharko: ariketa egin aurretik IVAPen 3. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C-1 jakintza-mailaren titulu edo egiaztagiriren bat dutenek eta Euskararen hizkuntza-eskakizuna Euskarako Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta duten pertsonak. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaz Bilbao Udal Etxebizitzak TEAri hori horrela dela egiaztatu dezan aipatutako erregistroan. Egiaztapen hori baimentzen ez duten hautagaiak beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko dute epaimahaiak hala eskatzen dienean.

Halaber, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, baldin eta ariketa hau egin aurretik egiaztatzen badute.

Ariketa honetan Gai edo Ez gai kalifikazioa emango da.

Oposizio-faseko gehieneko puntuazioa: Fase honetan gehienez lor daiteken puntuazioa, euskarazko proba aintzat hartu gabe, 40,00 puntukoa izango da.

B) *Lehiaketaren fasea*

Lehiaketa-fasea, berriz, oposizio-fasea amaitutakoan hasiko da, oposizio-fasea gainditu duten hautagaiekin. Oposizio-fasea gainditu duten hautagaiak eskaeran aurkeztutako eta behar den moduan egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, <https://opevmm.bilbao.eus> web-orrian argitaratutako iragarki batean epaimahaiak edo Bilbao Udal Etxebizitzak TEAko Kalitatea, Gizarte Baliabideak eta Zerbitzu Orokorrak Arloak jarritako epean.

Oinarri hauetan azaldutakoarekin bat etorrira baloratuko dira merezimenduak. Ez da baloratuko bestelako ezein merezimendu.

Ez da baloratuko izena emateko eskaeran alegatu ez den merezimendurik, espediente pertsonalean agertzen edo dokumentazio hori Bilbao Udal Etxebizitzak TEAren eskuetan badago ere. Eskaerak aurkezteko epea amaitzeko egunera arte jasotako merezimenduak baino ez dira baloratuko.

a) *Antzintasuna*

Administrazio publikoan teknikarien A taldeko, A-2 azpitaldeko informatika teknikariaren lanpostuetan emandako zerbitzuak, gehienez ere 14 puntu: 1,4 puntu zerbitzu urte bakoitzeko edo sei hilabeteko edo gehiagoko zati bakoitzeko.

Sektore pribatuan informatika teknikariaren lanpostuetan emandako zerbitzuak, gehienez ere 7 puntu: 0,7 puntu zerbitzu urte bakoitzeko edo sei hilabeteko edo gehiagoko zati bakoitzeko.

Edozein kasutan, lanaldi partzial edo murriztuan zerbitzua eman diren epeak lanaldi osoan jardun izango balira bezala zenbatuko dira.



Era berean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko Legegintzako 1/2023 Dekretuaren 21.1c) artikuluari jarraikiz, hautagaiaren lanbide-esperientzia baloratzeko merezimendu-baremoetan honako hauek ere kontuan hartuko dira: lehenik, zenbat denbora egon den hautagaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen hautagaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

b) Prestakuntza

Atal honetan gehienez 3,00 puntu lortu ahalko dira.

Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 35. artikuluan eta Unibertsitate ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuan araututako titulazio akademiko ofizialengatik, baldin eta horiek izatea deialdirako betekizuna ez bada eta administrazio eskudunak balio akademiko ofizialak emateko ahalmena aitortuta dauden irakaskuntza-zentro publiko edo pribatu batek eman baditu, honako zerrenda honi jarraikiz:

- Lizentziatura, arkitektura, ingeniari-tza edo gradu-titulua izatea (MECES 3): 1,5 puntu.
- Gradu-titulua (MECES 2), arkitektura teknikoa, ingeniari-tza teknikoa edo diplomatura izatea: 1 puntu.
- Unibertsitateko master ofizialeko titulua izatea: 0,5 puntu.

Ez dira baloratuko merezimendu gisa alegatu den goragokoa eskuratzeko titulazioak.

Unibertsitateko ikasketa bereko ziklo desberdinak gainditu izana egiaztatzen duten hautagaiei egiaztatutako goi-mailako zikloari dagokion titulua bakarrik hartuko zaie aintzat, bai merezimenduetarako, bai prozesura sartzeko titulaziorako. Balorazioa horrekin lortutako ikasketen MECES mailaren arabera izango da, ez izenaren arabera.

Ikasketei buruzko unibertsitate titulu bat duen pertsonari bideratutako egokitzapen-ikastaro baten bidez lortutako unibertsitate gradu-titulua titulu bakartzat hartuko da, jatorrizko titulazioarekin batera.

Gradu-tza edo unibertsitateko masterreko titulu bidez MECES 3 maila egiaztatzen denean, unibertsitateko masterra ez da merezimendu gisa zenbatuko deialdian MECES 3 mailako lizentziaturak, ingeniari-tzak edo arkitekturak dituzten hautagaiek parte hartzen badute.

Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoko 34.1 artikuluko azken tartekian eta Unibertsitate ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren VIII. kapituluan araututako berezko tituluak ez dira inoiz baloratuko.

c) Hizkuntzak

Gaztelaniaz bestelako Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak ezagutzea baloratuko da, zehaztutako mailen arabera, gehienez ere 1 punturekin, taula honekin bat.

- B2 maila: 0,5 puntu.
- C1 maila: 1 puntu.

Hizkuntzak egiaztatzeko Hezkuntza Zentroek edo balio akademikoko tituluak emateko legez gaitutako ikastetxeek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko dira. Edonola ere, hizkuntzen ezagutza merezimendu gisa baloratzeko, aurkeztutako tituluak hizkuntzaren 4 hizkuntza-gaitasunen (ahozko ulermena, idatzizko ulermena, ahozko adierazpena eta idatzizko adierazpena) ezagutza-maila egiaztatu beharko dute.

Egiaztatzen den hizkuntza bakoitzerako, eskuratutako ezagutza-mailarik altuenak puntuatuko du soilik.



Lehiaketa-faseko gehieneko puntuazioa: Lehiaketa-fasean lor daitekeen puntuazioa ezingo da izan 18 puntu baino gehiagokoa.

Oposizio-faseko ariketak amaitu eta lehiaketa-faseko merezimenduak baloratu ostean, epaimahaiak sailkapenaren ordena ezarriko du, puntuazio altuenetik txikienera, hautaketa-prozesuko bi faseak batuta.

Seigarrena. — Behin betiko sailkapena

Hautaketa-prozesuko ariketen eta/edo merezimenduen kalifikazioa emanda, epaimahaiak aukeratutako pertsonen zerrenda argitaratuko du, oposizio-fasea gainditu duten pertsonen lortutako puntuazioaren arabera eta, hala badagokio, lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioa batuta. Hautatutako pertsonen kopuruak ezingo du gainditu guztira iragarritako lanpostuen kopurua, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78.6 artikuluekin bat. Epaimahaiak dagokion izendapen-proposamena egingo du eta Erakundeko zuzendaritzari bidaliko dio zerrenda. Horrez gain, agintaritzak horri azken saioaren akta bidaliko dio, eta bertan jasoko dira, puntuazio-ordenaren arabera, bi faseak gainditu dituzten eta iragarritako lanpostuen kopurua gainditu duten pertsonak. Zerrenda hori plaza lortu dutenen arteko norbait lanpostuaz jabetuko ez balitz erabiliko litzateke bakar-bakarrik. Hala ere, azken zerrenda horretan sartzeak ez du beste eskubide edo aukerarik ematen, Oinarri Orokor hauen hamargarren oinarriak ezarritakoarekin bat. Lan-poltsak kudeatzeko araudiarekin bat, oposizio eta lehiaketaren faseak kalifikatu ondoren, iragarki-taulan eta webgunean (<https://opevmm.bilbao.eus>) iragarki bat argitaratuko da, gutxienez ariketa bat gainditu duten baina prozesua osorik gainditu ez duten pertsonak deitzeko, lan-poltsan sartzeko beharrezko baldintza eta merezimenduak egiazta ditzaten. Halaber, agiri guztiak egiaztatu ondoren, zerrenda argitaratuko da lehenago adierazitako tokietan.

Zazpigarrena. — Agiriak aurkeztea

Oinarri Orokorren hamabigarren oinarriak ezarritakoaren arabera arautuko da.

Plantillako langile finko bihurtzeko proposatutako pertsonen Udal Etxebizitzak erakundearen Kalitate, Giza Baliabide eta Zerbitzu Orokorren arloan (Nafarroa kalea 5, 5. solairua) aurkeztuko dituzte hamabigarren oinarrian hautaketa-prozesuan parte hartzeko zerrendatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentuak, 20 eguneko epean, gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako pertsonen ez badute aurkezten deialdian parte hartzeko eskatutako baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa, edo azterketatik edo mediku-azterketatik ondorioztatzen bada ez dituela betetzen eskatutako baldintzak, automatikoki geldituko dira prozesutik kanpo, ezingo dira lanean hasi eta jarduketa guztiak indargabetuta geldituko dira, eskabideko faltsukeriagatik izan ditzakeen erantzukizunei kalterik egin gabe, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatu ondoren. Kasu horretan, Zuzendaritza Kontseiluko presidentek izendapen-proposamena egingo du hautaketa-prozesuko ariketa guztiak gainditu dituzten eta indargabetze horren ondorioz lanpostu-kopuruaren barruan sartzen diren hautagaien alde.

Zortzigarrena. — Lanean hasteko proposamena

Hautagaien behin betiko kalifikazioa eta lehentasun-ordena zehazteko oposizio-fasean eta lehiaketa-fasean lortutako puntuak batuko dira, eta ezinbestekoa izango da gaitzat jotzea.

Lanean hasteko proposamena interesdunari jakinaraziko zaio eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udal Etxebizitzak erakundearen iragarki-taulan eta TEAren webgunean argitaratuko da.

**Bederatzigarrena. — *Lanean hastea***

Organo eskudunak lanean hasteko proposamena onetsi ondoren, hautagaiak lanean hasi beharko dira eta eskatutako baldintzak bete beharko dituzte, jakinarazpena jaso eta hurrengo 30 egunen barruan.

Adierazitako epean lanean hasten ez diren pertsonen kasuan, inolako justifikaziorik gabe, ulertuko da karguari uko egin diotela, eta eskubide guztiak galduko dituzte. Kasu horretan, erakundeko presidentek lanean hasteko proposamena egingo du oposizioko ariketak gainditu dituzten, oposizio- eta lehiaketa-fasean balorazio onena lortu duten eta uko-egite horren ondorioz iragarritako lanpostuen kopuruan sartzen diren hautagaien alde, Oinarri Espezifikiko hauen seigarren oinarriarekin bat.

Hamargarrena. — *Aurka egiteko bideak*

Oinarri hauen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren Zuzendaritza Kontseiluaren aurrean, hilabete bateko epean, edo zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

**I. ERANSKINA****I. ZATIA: GAI KOMUNAK**

1. gaia. 1978ko Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.
2. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua. Euskadiko eskumenak: eskusiboak, lege garatzekoak eta egikaritzekoak.
3. gaia. Udalerria. Biztanle-kopuru handiko udalerrien udal-antolakuntza (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. Titulua).
4. gaia. Bilboko Udalaren antolakuntza. Araudi organikoak.
5. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
6. gaia. 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena. Euskal enplegu publikoaren ordainsarien sistema. Enplegatutako euskal langile publikoen eskubideak, betebeharrak, jokabide kodea, bateraezintasunak eta ardurak. Diziplina-arau-bidea.
7. gaia. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzkoa. 8. gaia. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
9. gaia. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Datuen Babesari buruzko Erregelamendu Nagusia (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena).
10. gaia. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Bilboko Udalaren indarreko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Plana.
11. gaia. Administrazio-kontratazioa. Motak: elementu eta subjektuak, objektua eta kontratu publikoen kausa. Kontratatzeko modua eta kontratistak hautatzeko sistemak. Kontratuen formalizazioa.
12. gaia. Giza balia bideak arautzeko tresnak: lan-eskaintza publikoa, enplegu-planak eta beste arrazionalizazio-sistema batzuk.
13. gaia. Toki-erakundeen zerbitzura dauden langileak: motak eta araubide juridikoa. Tokiko funtzio publikoa: tokiko funtzionario motak. Langilea antolatzekeo tresnak: plantillak eta lanpostu-zerrendak.
14. gaia. Toki-erakundeen aurrekontu orokorra. Aurrekontu-egitura. Prestaketa eta onespena. Aurrekontuaren luzapena. Aurrekontua egikaritu eta likidatzea.
15. gaia. Tokiko erakundeen ordenantza eta araudiak.
16. gaia. Gorte Nagusiak. Herriaren defendatzailea. Arartekoa.
17. gaia. 49/1960 Legea, uztailaren 21ekoa, Jabetza Horizontalari buruzkoa.
18. gaia. 29/1994 Legea, azaroaren 24koa, Hiri Errentamenduei buruzkoa.

II. ZATIA: GAI ZERRENDA ZEHATZA

19. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Kontratu-motak. 12.etik 18.era bitarteko artikulua.



20. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Kontratuak adjudikatzeko prozedura. 131.etik 187.era bitarteko artikulua.

21. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Administrazio-klausula partikularren agiria eta preskripzio teknikoaren agiria. 121.etik 130.era bitarteko artikulua.

22. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Kontratu txikiak. 118. artikulua.

23. gaia. Administrazio elektronikoa. Herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izatea. Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa: egoitza elektronikoa eta Interneteko ataria. Identifikazio-sistemak eta sinadura elektronikoa. Artxibo elektronikoa. Administrazio-espeditzea.

24. gaia. Proiektuak kudeatzeko aurreikuspen-metodologiak: GANT, PERT eta proiektuak kudeatzeko metodologia arinak. Lean metodologiak.

25. gaia. Sistemak erostea: alternatibak aztertzea, bideragarritasuna ebaluatzea eta erabakiak hartzea.

26. gaia. Hardware eta software ekipamenduen arloan erabakiak hartzeko oinarriko aukerak.

27. gaia. Irisgarritasuna eta erabilgarritasuna. W3C. Diseinu unibertsala. Web-diseinu moldagarria.

28. gaia. Sistemen elkarreragingarritasuna (1). Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalak. Elkarreragingarritasunaren dimentsioak. Elkarreragingarritasun-arau teknikoak. Dokumentu eta espediente elektronikoen elkarreragingarritasuna eta administrazio publikoaren artean datuak trukatzeko arauak.

29. gaia. Sistemen segurtasuna (1). Arriskuak aztertu eta kudeatzea. Tresnak. Segurtasunaren Eskema Nazionala. Segurtasunaren Eskema Nazionalera egokitzea. Segurtasunaren Estrategia Nazionala. CCN-STIC.

30. gaia. Administrazio publikoaren arteko elkarreragingarritasunerako azpiegiturak, zerbitzu komunak eta zerbitzu partekatutakoak. CI@ve, Herritarraren Karpeta, Erregistroen Interkonexio Sistema, Datuen Bitartekaritza Plataforma, eta beste zerbitzu batzuk.

31. gaia. PC gailu pertsonalak eta gailu mugikorak. Gailu pertsonalen konektagarritasuna. Ekipamendu pertsonal eta gailu mugikorretarako segurtasun- eta kudeaketa-neurriak.

32. gaia. Cloud Computing. IaaS, PaaS, SaaS. Hodei pribatuak, publikoak eta hibridoak.

33. gaia. Sistema handiak eta sailtako sistemak biltegitratzeko sistemak. Multimedia-informazioa tratatzeko gailuak. Biltegitratzearen birtualizazioa. Segurtasun-kopiak.

34. gaia. Sistema eragileen kontzeptuak eta oinarriak. Bilakaera eta joerak.

35. gaia. UNIX-LINUX sistema eragileak. Oinarriak, administrazioa, instalazioa, kudeaketa.

36. gaia. Microsoft sistema eragileak. Oinarriak, administrazioa, instalazioa, kudeaketa.

37. gaia. Beste sistema eragile batzuen oinarriko kontzeptuak. OS X, iOS, Android, z/ OS. Gailu mugikorretarako sistema eragileak.

38. gaia. Eredu erlazonala. SQL lengoia. Datu-base erlazonalen kudeatzaileen arteko elkarreragingarritasunerako arauak eta estandarrak.



39. gaia. Webeko garapen-arkitektura. Web front-end garapena. Bezero script-ak. Framework-ak. UX. Zerbitzariko web-garapena, datu-baseetarako konexioa eta sistema eta zerbitzuekiko interkonexioa.
40. gaia. Microsoft NET garapen-ingurunea.
41. gaia. PHP garapen-ingurunea.
42. gaia. Kode irekiko softwarea. Software librea. Oinarrizko kontzeptuak. Aplikazioak ofimatikan eta web zerbitzarietan.
43. gaia. Adimen artifiziala: orientazio heuristikoa, adimen artifizial banatua, agente adimendunak.
44. gaia. Ezagutzaren kudeaketa: ezagutzaren irudikapena. Sistema adituak. Tresnak.
45. gaia. Big Data. Datuen multzo masiboak atzitu, aztertu, eraldatu, gorde eta ustia-zea. Hadoop inguruneak edo antzekoak. NoSQL datu-baseak.
46. gaia. Sare globalak erabiltzeko lengoaiak eta tresnak. HTML, CSS eta XML. Web-nabigatzaileak eta estandarrekiko bateragarritasuna.
47. gaia. Merkataritza elektronikoa. Ordainketa-mekanismoak. Negozioaren kudeaketa. Faktura elektronikoa. Ordainketa-pasabideak.
48. gaia. Aplikazioak eta inguruneak datuak babesteko araudiaren eskakizunetara egokitzea, segurtasun-mailen arabera. Zifratzeko eta ikuskatzeko tresnak.
49. gaia. Karaktere-ezagutza optikoa (OCR, ICR). Azterketa biometrikoa.
50. gaia. Informazio- eta komunikazio-sistemen plangintza estrategikoa. Informazio-sistemen plana.
51. gaia. Sistemen analisi funtzionala, erabilera-kasuak eta erabiltzailearen historiak. Sistemak garatzeko metodologiak. Metodologia arinak: Scrum eta Kanban.
52. gaia. Alderdi ez-funtzionalak aztertzea: errendimendua, segurtasuna, pribatutasuna.
53. gaia. Sistemak mantentzea. Mantentze-lan prediktiboak, egokitzaileak eta zuzentzaileak. Mantentze-lanen plangintza eta kudeaketa.
54. gaia. Informazio-sistemen kalitatea. EFQM eredia eta ISO 9004 zerbitzuetarako gida.
55. gaia. Dokumentuen kudeaketa. Edukien kudeaketa. Ezarpen handiko CMS eta DMS teknologiak.
56. gaia. Informazioa berreskuratzeko sistemak. Informazioa gordetzeko politikak, prozedurak eta metodoak.
57. gaia. ISOren sistema irekien interkonexioaren erreferentzia-eredua: arkitektura, geruzak, interfazeak, protokoloak, helbideratzea eta bideratzea.
58. gaia. Datuak transmititzeko sare publikoak. SARA sarea. sTETA sarea. Sareen plangintza eta kudeaketa.
59. gaia. Segurtasuna sareetan. Eraso-motak eta haiek prebenitzeko tresnak: suebakiak, sarbideen eta intrusioen kontrola, teknika kriptografikoak, etab. Komunikazio mugikorretarako berariazko neurriak.
60. gaia. Segurtasuna aplikazio-mailan. Web-zerbitzuen, datu-baseen eta erabiltzailearen interfazeen eraso motak eta babesa.
61. gaia. Zibersegurtasuna. Zibersegurtasun Estrategia Nazionala.
62. gaia. Sistema korporatiboetara urrutitik sartzea: identitateen kudeaketa, «single sign-on» eta telelana.
63. gaia. Sistemen eta datu-zentroen birtualizazioa. Lanpostuen birtualizazioa. Windows terminalen eta Linux zerbitzarien maketak.



II. ERANSKINA / ANEXO II
ESCARIA EGITEKO EREDUA / MODELO DE SOLICITUD
ONARPEN ESKABIDEA / SOLICITUD DE ADMISIÓN

1. Deialdia / Convocatoria						
Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria						
Sartzeko sistemak Sistemas de acceso	Leiaketa Concurso	<input type="checkbox"/>	Oposizioa Oposición	<input type="checkbox"/>	Oposizio-lehiaketa Concurso-oposición	<input type="checkbox"/>
Txanda / Turno:	Askea Libre	<input type="checkbox"/>	Barne sustapena Promoción interna	<input type="checkbox"/>	Desgaitasunen bat duten pertsonak Personas con discapacidad	<input type="checkbox"/>

2. Norberaren datuak / Datos personales			
Lehenengo abizena / Primer apellido		Bigarren abizena / Segundo apellido	Izena / Nombre
NAN/AIZ / DNI/NIE	Naziotasuna / Nacionalidad	Jaioteguna / Fecha de nacimiento	Sexua / Sexo E. / M. <input type="checkbox"/> G. / H. <input type="checkbox"/>
Telefono finkoa / Teléfono fijo		Telefono mugikorra / Teléfono móvil	Posta elektronikoa / Correo electrónico

3. Jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio a efectos de notificaciones						
Helbidea / Dirección		Ataria / Portal	Eskailera / Escalera	Solairua / Piso	Eskua / Mano	Atea / Puerta
PK / CP	Herria / Localidad	Probintzia / Provincia		Herraldea / País		

4. Euskara / Euskera			
Profila egiastutzen dut (jarri «X» dagokion lekuan) / Acredito el perfil (marcar con una «X» el correspondiente)			
1HE / PL 1 <input type="checkbox"/>	2HE / PL2 <input type="checkbox"/>	3HE / PL3 <input type="checkbox"/>	4HE / PL4 <input type="checkbox"/>
Euskara azterketa egitea eskatzen dut / Solicito realizar examen de euskera			
1HE / PL 1 <input type="checkbox"/>	2HE / PL2 <input type="checkbox"/>	3HE / PL3 <input type="checkbox"/>	4HE / PL4 <input type="checkbox"/>

5. Aukera ezazu oposizioaldia egieko nahi duzun hizkuntza / Seleccione el idioma en el que desea hacer la fase de oposición	
Euskara / Euskera <input type="checkbox"/>	Gaztelania / Castellano <input type="checkbox"/>

6. Betebeharrak / Requisitos
Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria:



7. Merituak / Méritos	
Merituen zerrenda / Relación de méritos	
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	

Leku zabalagoa behar izanez gero datu edota informazio gehigarri-rako, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud.

8. Kontratazio zerrendetan sartzea / Ingreso en listas o bolsas de contratación	
Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SI o NO:	
	Bilboko Udal Etxebizitzak TEAan indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak administrazio Publikoen beste erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera. Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales del O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao.
	Baimena ematen diot Bilboko Udal Etxebizitzak TEAri, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, ziurtagiri, hizkuntza eskakizun eta gidabaimenen datuak kontsulta eta egiazta ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek esduragarri dauden heinean. Ez baduzu baimen hau ematen daozkion agiriak erantsi beharko dituzu. Autorizo al O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao a consultar y verificar por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, certificados, perfiles lingüísticos y permisos de conducción alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de no dar la autorización deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes.
	Baimena ematen diot Bilboko Udal Etxebizitzak TEAri nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan. Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que el O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo.



LEGE-INFORMAZIOA

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaketa-prozesu honetan onartua izatea eta bere erantzukizunaren pean AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eskabidean agertzen diren jarraibideen arabera bete duela eskabidea, deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri berezientan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bere osasun egoerari buruzkoak barne. Halaber, hala eskatzen zaionean, eskabidean jasotako datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du.

INFORMACIÓN LEGAL

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que la ha cumplimentado de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a su estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

Jarri «X» laukitxoan / Marque con una «X» en el recuadro

<input type="checkbox"/>	ZINPEAN EDO HITZ EMANDA AITORTZEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO
--------------------------	--

Eskaera hau sinatu baino lehen, irakur ezazu arretaz datuen babesari buruz atzealdean ezarritako informazioa.

Antes de firmar esta solicitud, lea atentamente la información sobre protección de datos recogida al reverso.

Tokia / lugar

Urtea / año

Hilabetea / mes

Eguna / día

Sinadura / Firma

BILBOKO UDAL ETXEBIZITZAK TEA
O.A.L. VIVIENDAS MUNICIPALES DE BILBAO



Datuen babesa	Protección de datos
<p>Honako hau jakinarazten dizut, indarrean dagoen datuak babesteko araudian aurreikusitako ondorioetarako:</p> <p>Zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Bilboko Udal Etxebizitzak TEA da (Navarra Kalea, 1, 5. eta 6. solairua, 48001 Bilbo).</p> <p>Bilboko Udalean, Modernizazioko Idazkaritza Teknikoaren Sailatalaren burua da datuak babesteko ordezkaria (helbidea: Ernesto Erkoreka plaza, 1, 5. solairua, 48007 Bilbo).</p> <p>Zure datuen tratamenduak helburua da aurkeztuko zaren hautaketa-prozesua egoki prestatu eta garatzea, hautaketa-prozesuaren ondorioz sor litekeen lan-poltsa eratu eta kudeatzea, zuk alegatutako tituluak eta, oro har, merezimenduak egiaztatzea eta aurkeztuko zaren plazak betetzeko behar diren betekizun guztiak dituzula egiaztatzea.</p> <p>Eman dituzun datuak kontserbatuko dira hautaketa-prozesuak irauten duen bitartean, sor litekeen lan-poltsa indarrean dagoen bitartean (lan-poltsa horretan sartzen bazara) eta administrazio honekin ezar litekeen zerbitzu-harremanak irauten duen bitartean.</p> <p>Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren (EPOETB) legezko manu bat (55. eta 56. artikulua) betetzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua denean egiaztatzea ea betetzen dituzun funtzio publikoan sartzeko betekizunak eta hautaketa-prozesuan hori betetzeko behar diren gainerako inguruabarrak. EPOETBn (10. artikulua) ezarritako botere publiko bat egikaritzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua aurkeztu zaren hautaketa-prozesuaren ondorioz egin litezkeen lan-poltsak kudeatzea denean.</p> <p>Baimenik ematen ez baduzu aurretik adierazi diren arrazoieta oinarriturik zure datuak tratatzeko, ezin izango duzu hautaketa-prozesuan parte hartu.</p> <p>Posta elektronikoko helbideari eta telefono-zenbakiei buruzko zure datuak hautaketa-prozesuan komunikazioak egiteko tratatzeari dagokionez, horretarako berariaz ematen duzun baimena izango da legezko oinarria. Hautaketa-prozesuan parte hartzea eta horren ondorio guztiak ez daude zure posta elektronikoko helbidearen eta zure telefono-zenbakien datuak tratatzeko baimena ematearen mende.</p> <p>Zure datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila) badaude sor litezkeen lan-poltsetan, helburu bakar honekin laga ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuei, betiere jasota badago berariaz baimena eman duzula horretarako: lan-eskaintzak egin ahal izatea legez ezarritako terminoetan.</p> <p>Zeure datuetara irispide izateko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko dituzun eskubideak tratamenduaren arduradunaren aurrean egikaritu ahal izango dituzu. Eskubidea izango duzu, era berean, eskatu zaizun tratamendurako edo tratamenduetarako eman duzun baimena kentzeko, baina horrek ez dio legitimitaterik kenduko baimena kendu aurretik eginiko tratamenduari. Era berean, ezin izan badituzu zeure eskubideak egikaritu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu datuen babesaren gaian eskuduna den kontrol-agintaritzaren aurrean.</p>	<p>A los efectos previstos en la normativa vigente de protección de datos se le informa que:</p> <p>El Responsable del tratamiento de sus datos personales es el O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao (Calle Navarra, número 1, 5.º y 6.ª planta, 48001 Bilbao).</p> <p>El Delegado de Protección de Datos del Ayuntamiento de Bilbao es la Jefatura de Subárea de Secretaría Técnica de Modernización, con dirección en la Plaza Ernesto Erkoreka, número 1, 5.ª planta, 48007, Bilbao.</p> <p>Sus datos serán tratados con el fin de preparar y desarrollar correctamente el proceso selectivo al que usted aspira y la constitución y gestión de la bolsa de trabajo que pudiera crearse a resultados del mismo, de verificar los títulos y méritos en general alegados por usted y de acreditar que cuenta con todos los requisitos necesarios para el acceso a las plazas a las que concurre.</p> <p>Los datos proporcionados se conservarán mientras dure el proceso selectivo, mientras esté vigente la bolsa de trabajo que pudiera crearse, en caso de acceder a ella, y mientras dure la relación de servicio que pudiera llegar a establecerse con esta Administración.</p> <p>La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de verificar los requisitos de acceso a la función pública y las circunstancias que determinen su desempeño en el proceso selectivo es el cumplimiento de un mandato legal contenido en el TREBEP (artículos 55 y 56). La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de gestionar las posibles bolsas de trabajo resultantes del proceso selectivo al que usted aspira es el ejercicio de un poder público recogido en el TREBEP (artículo 10).</p> <p>De no prestar el consentimiento para el tratamiento de sus datos basado en los antedichos motivos, no será posible la participación en el correspondiente proceso selectivo.</p> <p>La base legal para el tratamiento de sus datos relativos a dirección de correo electrónico y números de teléfono para comunicaciones durante el proceso selectivo es su consentimiento expreso a tal efecto. La participación en el proceso selectivo y todas sus consecuencias no están supeditadas a la prestación de su consentimiento para el tratamiento de los datos relativos a su correo electrónico y sus números de teléfono.</p> <p>Sus datos personales contenidos en las posibles bolsas de trabajo (nombre y apellidos, DNI, domicilio, teléfono de contacto y nivel de formación) serán cedidos, siempre que conste su expreso consentimiento, a otras Administraciones Públicas con la exclusiva finalidad de que les puedan ser realizadas ofertas de empleo en los términos legalmente previstos.</p> <p>Usted podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y a la portabilidad de sus datos. Asimismo, usted tiene derecho a retirar el consentimiento prestado para el o los tratamientos que así lo hayan requerido, sin que ello obste a la legitimidad del tratamiento realizado previamente a su retirada. De igual modo, usted podrá presentar una reclamación ante la Autoridad de Control en materia de Protección de Datos competente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.</p>